

BALIOZKOTZEAK
ESKAERA-ORRIA BETETZEKO JARRAIBIDEAK

1.- Ikasleak egiaztatu egin behar du egin dituen irakasgaietatik zeintzuk diren Letren Fakultatean ikasi nahi duen karreraren ematen direnen berdinak edo antzekoak.

2.- Parekotasuna egon beharko da bai edukien aldetik, bai kreditu-kopuruaren aldetik. Edukien parekotasuna egiaztatzeke, nahikoa da egindako irakasgaiaren programa eta baliozkotu nahi den irakasgaiaren programa alderatzea. Letren Fakultatean ematen diren titulazioen ikasketa-planak fakultateko web orrian daude ikusgai, Graduako Ikasketak deritzon atalean. Atal horren barruan, egin nahi den lizentziatura edo gradua aukeratu eta bertan agertuko dira hori osatzen duten irakasgai guztien programak.

Egindako ikasketak ECTS kredituetan badaude, baliozkotzea ondorengo proportzio honen arabera egingo da: $4,5 \text{ ECTS} = \text{UPV/EHUko } 6 \text{ kreditu}$.

3.- Eskaera-orriaren atal guztiak behar bezala eta oso-osorik bete behar dira, eskatzen diren datu guztiak emanaz. Eskaera-orria web orritik jaitsi eta ordenagailu bidez betetzea gomendatzen da.